

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren balorazioa ETaren adierazpenaren aurrean

Osteguna, 2018.eko maiatzak 3


Gaur osteguna, 2018ko maiatzaren 3an, ezagutzera eman den ETaren adierazpenaren aurrean, Nafarroako Gobernuak hurrengo gogoetak jakitera eman nahi ditu.

Lehenik, ETaren komunikatuak banda terroristaren desegitea adierazten du, desegite

aldebakarrekoa eta behin-betikoa, hain zuzenere, gure gizarteak aspalditik eskatu eta esijitu duena. Terrorismok, indarkeriak eta oinazeak markatu duten gure historiaren kapitulu Ilin baten itxieraren aurrean gaude, beraz.

Bigarrenik, ETak aukera bat galdu du haren jarduera itxi eta onartuz argi eta garbi hark eragindako oinazearen injustizia. ETak aukera bat galdu du hamarkada hauetan izan duen jarduerari buruzko begirada kritikoa proiektatzeko, eta horrekin batera, erantzun bat emateko biktima guztiei, inongo bereizketarik gabe, izan ere, den-denak bidegabeko indarkeriaren biktimak baitira. Biktimak dira, hain zuzen ere, komunikatu honetan faltan botatzen direnak.

Eta hirugarrenik, ETak komunikatu honek eskaintzen zion aukera galdu du benetako autokritika sakona egiteko. ETaren bukaerako komunikatuak haren existentzia eta haren jarduera justifikatu nahian jarraitzen du, baina ETak ez zuen sekulan existitu behar izan, eta sekulan ez zuen inork sinistu behar ideia edo proiektu bat defenditzen ahal zenik indarkeriaren bitartez. ETaren indarkeria terrorista bidegabekoa eta ezin justifikatuzkoa da, eta haren ondorioei erantzuteak lan serio eta sakona eskatuko du, Nafarroako Gobernua egoera berri honetan egiteko prest dagoena, beti ere biktimen eskubidearekiko konpromisotik abiatuta.



Nafarroako Gobernua.